

# Merkatarien antolaketa eta erakundetzea iraultza industrialaren lehen unean: Bilboko kontsulatuaren desagertzea egoitza historikoa birrindu arte. (1830-1896)

Dr. Joseba Agirreazkuenaga

Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea

1830ean Bilboko kontsulatu historikoa desagertu zen, ondoren Erret Merkatal Batza eratu zen. (1830.II.22) Besteak beste, aurreko kontsulatuaren ondasunak kudeatu zituen eta merkatarien antolakunde nagusia izan zen. Hala ere, 1844an bere gain zegoen oraindik Bilboko itsasadarrean zeuden kaiak eta ostantzeko lanak nabigazioa bideratzeko. Baina aurrerantzean, arduraren Espainiako Gobernuaren ardurapean egongo ziren. 1859an *Junta de Agricultura, Industria y comercio de la Provincia de Vizcaya* delakoa antolatu zen eta 1869an Junta de Comercio de Vizcaya. Merkatarien erakundearen eraginez sortu zen Junta de Obras del puerto delakoa, (E.A. 19.11.1872- 5.9.1877) 1877ko dekretuaren bidez zergen bidezko diru sarrerak lortu zituelarik lanak burutzeko.

Junta de Comercio de Bizkaia, la Junta de Agricultura, industria y Comercio eta Consejo Provincial de Agricultura, industria y comercio erakundearen egoitza garai batean Bilboko kontsulatuarenak ziren erabili eta zaindu zuen. Bilboko udaletxearen bigarren solairua hain zuzen ere. Baina Bilboko udalaren eskariz, azkenik behera bota egin zen eraikin historikoa. 1886an merkatarien ganbara antolatu zen. Kontsulatuaren ondasunak eta artxiboa Bilboko udalak gorde zituen.

Giltza hitzak: Merkatariek, Bilbao, Merkatarien Batza, Kontsulatu, "Junta de Agricultura, industria y comercio" udaletxea

## **La organización institucional de los comerciantes: de la disolución del Consulado de Bilbao al derribo de su sede histórica, la Casa Consistorial de Bilbao (1830-1896)**

Cuando en 1830 se disolvió el Consulado de Bilbao se constituyó la Real Junta de Comercio y Tribunal de Comercio que heredó algunas de las funciones y competencias públicas propias del Consulado de Bilbao. Asimismo representaba la organización institucional pública de los comerciantes de Bilbao. A partir de 1844 las facultades relativas a reparaciones de muelles, obras del puerto y ría de Bilbao fueron centralizadas, es decir, asumidas por la Dirección general de Obras públicas del Gobierno español en perjuicio de la Junta de Comercio. En 1859 se constituyó la Junta de Agricultura, Industria y comercio de la Provincia de Vizcaya dependiente del Gobernador civil y fue disuelta la Junta de Comercio. Los comerciantes y la Diputación Foral de Bizkaia se opusieron a la nueva institución. El 1 de abril de 1869 se formó la "Junta de Comercio de Vizcaya". Estas instituciones fomentaron la creación de la Junta de Obras del puerto. (R.O. 19.11.1872- 5.9.1877)

La Junta de Comercio de Bizkaia, la Junta de Agricultura, industria y Comercio y el Consejo Provincial de Agricultura, industria y comercio poseían los bienes y los locales del Consulado histórico de Bilbao, la segunda planta del edificio de la casa consistorial de Bilbao hasta que por iniciativa del consistorio bilbaíno fue aprobado su derribo (R.D. 11.7.1894). Los bienes y archivos del Consulado los conservó el Ayuntamiento de Bilbao.

Palabras clave: Comercio, Bilbao, Consulado, Junta de comercio, Junta de Agricultura, industria y comercio, casa consistorial

## **The institutional organisation of the merchants: from the dissolution of the Consulate of Bilbao to the demolition of its historical headquarters, the Council House of Bilbao**

When the Consulate of Bilbao was dissolved in 1830, the Royal Board of Trade (Real Junta de Comercio) and the Trade Tribunal were formed, which inherited some of the public functions and powers of the historical Consulate of Bilbao. It represented the public institutional organisation of the Bilbao merchants. After 1844, the powers concerning dock repairs and works in the port and estuary of Bilbao were centralised, that is, assumed by the General Directorate of Public Works of the Spanish Government to the detriment of the Royal Board of Trade. In 1859, the Board of Agriculture, Industry and Trade of the Province of Bizkaia was formed, which depended on the Civil Governor, and the Royal Board of Trade was dissolved. The merchants and the *Foral* Deputation of Bizkaia were opposed to this new institution. On April 1<sup>st</sup> 1869, the "Board of Trade of Vizcaya" was formed. These organisations promoted the creation of the Board of Port Works. (R.O. 19.11.1872-5.9.1877). The Board of Trade of Bizkaia, the Board of Agriculture, Industry and Trade and the Provincial Council of Agriculture, Industry and Trade were the owners of the assets and offices of the historical Consulate of Bilbao, located on the second floor of the Council House of Bilbao until on the initiative of the Bilbao Council its demolition was approved (R.D. 11.7.1894). The assets and archives of the Consulate were preserved by the City Council of Bilbao.

Key words: Commerce, Bilbao, Consulate, Board of Trade, Board of Agriculture, Industry and Trade, Council House

## Sarrera

Merkatarien erakundeen historiari buruz Teofilo Guiard dugu lehen historialari nagusia. <sup>1</sup>Kontsulatu erakundearen historia idatzi zuen, sorrera garaitik desagertu arte 1829an. Ondoko urteetan Bilboko merkatarien eragina eta antolaketa erakunde publiko desberdinen bidez plazaratu zen.: *Real Junta de Comercio*, 1830ean, *Junta de Agricultura, Industria y Comercio* (1859), Junta de Comercio de Vizcaya, (1869) *Consejo Provincial de Agricultura, Industria y Comercio*. Horrez gainera *Junta de Obras del puerto* erakundearen eta *Camara de Comercio industria y navegación de Bilbao*-k, merkatarien eragina eta erakundetzea islatu zen.

Honako lan honetan, merkatarien egoitza historikoaren birrintzea, ikur moduan hartu dugu, eraikina bera Bilboko garrantzitsuenetakoa zelako.<sup>2</sup> Ekintza honek, nolabait, erakusten du historian barreneko merkatarien erakundetzearen haustura gertatu zela eta industrializazio garaiko merkatariek ondarearen ardura txikia izan zutela. Merkataria, Bilboko historiaren nortasunaren ikur argia izan ziren mendetan barrena. Bilbo portu bezala sortu zen eta merkatarien gune garrantzitsua izan zen.

Bilakabide kronologiko honetan, erakunde publiko berriak ez ezik, merkataria, finantza erakunde pribatu berriak ere antolatu zituzten: Adibidez Banco de Bilbao. Bestalde, merkataritza produktiboa delakoan ere, industrian alegia, buru belarri sartu ziren. Beraz merkataria izatetik industrialariak izatera igaro ziren.

Igarobide garai honetan, alegia, oraindik merkatarien nortasuna gailendu zen baina 1860 urteaz geroztik, industrigintzaren ahaleginak gero eta indartsuagoak ziren. Kapitalaren atal batzuk, enpresa industrialak sortzeko bideratu zituzten. Eta mende bukaeran, historian barreneko ohizko merkataria nagusien lekuan, industria arloko pertsonai nagusiak nabarmendu ziren.

Igarobide garrantzi eta izugarritzko honetan, merkatarien erakundetzea zer nolako ibilbidea izan zuen erakutsiko dugu.

---

<sup>1</sup> GUIARD T., *Historia del Consulado y casa de contratación de la villa de Bilbao*. Bilbao, 1872, hiru liburuki.

<sup>2</sup> LEIS A." Estudio-artístico de las casas consistoriales desaparecidas de Bilbao (Villa y anteiglesias. *Ondare*, 18. San Sebastian, 1999, 113-142

LEIS, A. Arquitectura edilicia en Bilbao: las casas consistoriales" *Bidebarrieta*, 13, Bilbao, 2003, 396-405

### **Espainiar erresumarako Erret merkatal kodearen ezarpenaz Bizkaian: Bizkaiko Batzar Nagusien erabakia eta Bilboko Kontsulatuaren buruen iritzi eta ikuspegiak. (1829-1830)<sup>3</sup>**

Espainiar erresuma inperio zabala eta boteretsua zen 1810 urtean. 1812ko konstituzioaren arabera espainolak bi hemisferioetan banatzen ziren: Ameriketako kolonietako biztanleak ere nazio espainiarreko kide ziren. Baina hogeitau urte beranduago, Ameriketako lurralde gehienak Espainiar erresumatik at antolatu ziren eta bere kabuz aginte politikoa hartu zuten. Iraultza liberalen ondorioz, Europako ohizko erresumak Estatu-nazioren eredu hartzen hasi ziren. Hau da Estatu berriko biztanle eta hiritar guztiak aurretik irudikatzen zen nazio eredu jakin baten arabera, hartzen zuten bere nortasun zibiko, politikoa eta kulturalaren definizioa.

Espainian, konstituzio liberalen agindupeko esperientzia laburren erreazioz, Fernando VII agindupean, erresuma absolutismoaren ildotik antolatutik zegoen, lege zaharren arabera. Baina 1823an, konstituzio liberalaren aurkako joera gogorra izan bazen, 1830ean, Fernando VII erregetzaren amaieran, absolutisten kemen antikonstituzionalista baretu eta bigundu egin zen. Garai bateko absolutista talde batzuk bilakaeran murgildu ziren eta erresuma absolutista estatu-nazioaren ikuspegitik antolatzeko, erreforma administratiboak burutzen erabakitzen eta aplikatzen hasi ziren. Goitik beherako hau da goi mailako boteretik abiatutako erreformak ziren. Aurkariak aldiz, Fernando VIIaren Karlos anaiaren inguruan bildurik, erregezale eta absolutista porrokatuak izanik, laster batean, karlista izenez ezagunagoak izango ziren.

Giro honetan, merkatal kodea burutu zen. Kontsulatuaren egitekoa aurrerantzean banatu egingo zen eta beraz, bereizketa jarri zuen: alde batetik merkatarientzat epaitegia izango zen, epaile zentzudunen bidez arautua. Bestetik, kontsulatuaren ohizko egiteko eta ondasunen kudeaketako, administrazio batza. Azken honi deitu zioten, *Junta de Comercio* delakoa laster Erret titulua hartu zuela.

Merkatal kodea berriaren testua Bizkaira iritsi zenean, Bizkaiko Diputazioak arduraga garbia erakutsi izan zuen: Bizkaiko lurraldean, aginte administratiboaren arduraga nagusia, Diputazioaren esku egon behar zuen. Ikuspegi hau defendatzeko, foruetan oinarritu zen, bertan agintearen orokorraren zaintzaz Diputazioa arduratu behar zela agintzen zelako. Beraz ez zuen aginte administratibo berririk onesten.

Bere aldetik, "Diputazioaren iritzia aintzat harturik, Kontsulatuko buruek ere etorkizunean bereziki Kontsulatuaren ondasunen kudeaketaz gogoeta egi-

---

<sup>3</sup> Bizkaiko Foru Artxiboa. Gernikako Batzar Nagusietako artxiboa. Comercio erregistroa, 4, leg. 1.

ten arduratu zen. Azken batean, Kontsulatuak ere bere gain ardura administratibo eta ekonomiko handiak zituen.

Jaurerriko sindikoak, Batzar Nagusietan aukeraturikoak Merkatal kodea Bizkaian indarrean ezarri baino lehenago, foruen bidezko agintearen arabera-ko oniritzia, azaldu behar zuen, ondoren, “pase forala” zeritzona gainditzeko. Ondoren Diputazioak Bizkaian aplikatzeko agindua indarrean jartzeko. Sindikoaren txostena, azterketa juridikoan oinarriturik zegoen eta horretarako Bizkaiko kontsultorea edo legelari nagusia zena, Casimiro Loizaga dugu gaiari buruzko azterketa burutu zuena. Txostenean lehen baieztapena hauxe zen: Diputazioari dagokio Bizkaiko administrazio publikoaz ardura nagusia “...*la Diputación general que es la Autoridad superior administrativa de este Señorío y como tal ejerce todas las atribuciones de Intendencia que son conciliables con sus fueros y franquezas*”. Espainiar Erresumako bestelako herrialdeetan intendenteen esku zeuden ardura administratiboak, baina Bizkaian Jaurerriarenak izan behar zirela aldarrikatu zuen. Horrez gainera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako agintarien eskariz, 1825eko abenduaren 2ko erret aginduaren bidez Erresumako agintaritzak onartu zuen, aipaturiko herrialdeetan udaletako era guztietako agintarien proposamenak, lege zaharraren ildokoak alegia (“oficios de Justicia y Ayuntamientos”) lurraldeko epaitegira bidali ordez, herrialdeko Diputazioa bidaltzerik bazegoela “*cuias Corporaciones forales será las que expidan en nombre de S.M. los Titulos prevenidos en la Real Cédula de diez y sieta del anterior octubre*”. Berez Bizkaiko ordezkarien ustetan ez ziren premiazko izendapenak egiteko delako aurre proposamenik egin behar eta ondorioz Foru Diputazioa izan zitekeen ere merkatarien epaitegia.

Horrez gainera, argudioaren logikari jarraituz, bazirudien, Diputazioak bere arduren baitan kokatu nahi zituela Kontsulatuaren ohizko agintaritza administratiboa eta beraz finantza arloa. Azken batean, Diputazioko agintariak, lur jabedun nagusiak, sarritan merkatari nagusiekin ezkontza loturak zituztenek, Bizkaiko lurraldean Estatu-nazio berrietan indarrean zegoen administrazio publikoaren agintaritza osoa bere gain hartzeko joera erakusten hasi zen.

Aukera honen aurka kontsulatuko zenbait merkatarien iritzia berehala azaldu zen. 1829ko azaroaren 21ean, Antonio Gomez de la Tora, Casto de la Puente eta Franciso Goiri Ganak Diputazioari argi eta garbi adierazi zien, kontsulatuak erabiltzen zuen agintaritza ekonomiko-administratiboa eta portuaren kudeaketa bereziki, ez zegokiola Diputazioari. “ *el ramo administrativo es y debe ser puramente privativo del consulado segun las circunstancias de su situación y del origen de su creación. Es a quien pertenece el cuidado de los mui diversos ramos que han sido siempre de su atribucion facultativa y que necesitan la ría, muelles y los otros muchos obgetos para la buena entratrada, salida y demas atenciones que exige el comercio naval para que se comuniquen con el terrestre. Nunca es justo que salga esta atribucion de especial incumbencia del Consulado, ni pasar a otras manos, ni al de V.S.S. tampoco, porque si la*

*Diputacion egerce algunas de las atribuciones de Intendente nunca ha desempeñado funcion alguna administrativa sobre los fondos municipales y los aplicados para la construcción y conservacion de muelles, cuia recaudacion e inversion depende esclusivamente d elos puebelo o corporaciones a quienes respectivamente corresponde, siendo ademas una versad de Fuero que no deben inovarse en su esencia y formas las diversas autoridades locales de este Señorio. “*

Beraz Diputazioaren azpiko nahia, bere agintaritzza zabaltzea alegia, salatzen zuten.

Laburbilduz, Diputazioko legelariak honako akats edo zuzenketa hauek burutzea proposatzen zuten:

1. Merkatarien zerrenda edo matrikula egin beharrik ez zegoen, foruen arabera Bizkaian merkataritzan aritzea guztien eskubide zelako eta beraz zerrendan izatea eskubide hori bideratzeko alperrik zen.
2. Intendenteen esku zeuden eskumenak, Diputazioarenak bihurtzea. Kargu hauteskundeak beraz, ohizko eran mantentzea, epaileak eta kontsulatuaren bidezko lanbideak, tokian tokiko merkatarien esku.
3. Epaiketa bidea erreza eta Bilbon bertan merkatarien premien arabera antolatzea zela bidezkoena. Ez baita ahaztu behar, goi mailako barrutia Valladoliden zegoela beraz Bilbotik urruti.

Kritikak ez muinean, ezarpena egiteko edo foru sistemaren inguruko egokitzapena nolatan burutu behar zen.

Gipuzkoako Diputazioko legelari nagusi edo kontsultoreak, F. Arocenak bere aldetik beste txosten bat idatzi zuen Donostiako kontsulatuak kudeatzen zituen zergen bidezko diru sarreraren administrazioaren jarraipena aldarrikatu zuen. Argi eta garbi adierazten zuen, Erret ogasunak ez zuela aginterik, foruen arabera, Gipuzkoako lurraldean.

Arabako Diputazioak kritikatzten zuen “gobernador subdelegado de rentas” delakoaren agintearen zabalkundea, intendente gisa, ez zen onartzen, lurraldeko arazo administratiboetan sartzetik ez zuelako.

Bilboko kontsulatuaren izenean, 1829eko azaroaren 28an, azterketa luzea idatzi eta zuzendu zion erregeari, Gabriel Benito Orbegozo eta Angel Martinezek sinatua. Kontsulatuak ontzat eman zuen kode berriaren testua. Hala ere, kodearen ondorioak aplikatzeko unean, iraganean kontsulatuak zuen agintea eta ondasunen kudeaketaren jarraipenaren bermea lortu nahi zuen. Premiazkotzat onartzen zuen, bi arloak ondo bereiztea, kontsulatua desagertu ondoren: Merkatarientzat epaitegia eta “Junta administrativa” deitzen zuena, hau da, kontsulatua zuzenbide publikoko erakundea zen heinean, administrazio arloan kudeatzen zuena bere horretan jarraitu behar zuela. Laburbilduz, Diputa-

zioaren iritzian honako hauek ziren Bizkaian aplikatzeko merkatal kodea egin beharreko zuzenketak:

1. Merkatari guztien izen abizenezko errolda osoa egin beharrik ez zegoen, bizkaitar guztiak dutelako merkatari izateko eskubidea.
2. Epaile lanetarako, foruen aginduen arabera, tokian tokikoak izan behar ziren eta beraz bertako merkatariak aukeratu eta izendatu behar ziren. Horrez gainera, bigarren edo gorengo instantzia Valladoliden bazegoen, portuko eta merkatarien arteko liskarrak berehala erabakitzerik ez zegoen. Barcelona, Valencia, Sevilla eta Madrillen bertan zegoenez gorengo instantzia, ez zen horrelako eragozpenik gertatzen. Beraz Bilbon gorengo instantzia egon beharko luke.
3. Azaroaren 16ko erret aginduak onarturik, kontsulatuaren zeregin administratiboak eta bere ondasunak kudeatzeko, administrazio Batzak antolatu ziren. Bilbon erregeak izendaturiko intendenterik indarrean ez zegoenez gero, Korregidorea zen delako batza administratiboaren buru edo presidente. Baina Bizkaian Korregidorearen zeregin nagusia epaile funtzioa ere zenez gero, bere pertsonak bi zeregin desberdin betetzen zituen, administratiboa eta epailearena. Merkatal kodeak bi funtzioen bereizketa proposatzen zuenez gero, bidezkoa zen, batza administratiboaren buru, besteren bat izatea. Kontsulatuko merkatarien iritzian, administrazio batzako ordezkari dekanoa edo zaharrenak bete beharko luke postua. Bestalde, Diputazioa zenez gero intendentearen agintearen ordezkoa Bizkaian, kontsulatuaren administratibo batza berriaren burutza berari zegokiola adierazten zuen edo gehien bat, Diputazioa eta korregidoreari aldi berean, berau Diputazioko bilkuren buru edo presidentea zen heinean.

Administrazio batzak garrantzi handia hartzen zuen ondasun garrantzitsuak kudeatu behar baitzituen, besteak beste, Bilboko itsasadarreko azpiegitura guztia, merkatal irakaskuntza zentroak eta zergen bidezko diru sarrerak, aberia eta prebostazgoaren zergen bidezkoa alegia. Horrez gainera, azpiegituretan egindako inbertsioen kudeaketa.

4. Merkatarien epaile izateko izendapen eta aukeraketa, ohizkoa izan behar zuela, hau da Bilboko merkatarien artean antolatua.

Beraz, merkatal kodearen ezarpenaren ondoriozko arazoak nola bideratu zen koska. Eta iritzi horien ondoan, Espainiako ogasun ministerioaren (Ministerio de Hacienda de España) buruak, Lopez Ballesterosek, 1830eko urtarrilaren 29an ondoko erantzuna eta erabakia azaldu zuen. Bidenabar, ez da ahaztu behar, oraindik orain, 1830ean erresuma lege zaharreko legedien arabera antolatua zegoela, absolutismoaren ildoan, hau da erregearen aginte nagusian oinarriturik. Dena dela, liberalismoaren eraginezko joerak eta bereziki administrazio baterakoien joera nabarmena zen honezkero.

1. Premiazko da merkatari nagusien zerrenda burutzea, erresuma osoan delako gaitasunaren erakusle izan daitezen.
2. Epaileak erret agindukoak izango ziren aurrerantzean eta ez kontsulatuaren bidez aukeratuak eta izendatuak ohizko arautegiaren arabera. Erregeak kontsulatuaren arautegiak onartu zituen antzera aurrerantzean, erret aginduzkoak izatea nahi zituen.
3. Bestelako erresumako lurraldeetan intendendeen esparrukoak ziren aginteak, Bizkaian Diputazioak beteko zituen. Diputazioak kasu honetan, aurrerantzean erregearen ordezkari soilak bihurtzen ziren: “*delegados en ellas de la autoridad Regia*. Horra bada, nabardura berria: Agintea ez zegokion Batzar Nagusien bidez, Erregearen aginte osoaren delegazioz baizik.
4. Merkatal epaitegietako apelazioak, foruen erregimenaren araberako prozedura jarraitu beharko du. Ondorioz, Valladoliden Bizkaiko Chancilleria delakoa zegoenez horretara bideratu beharko ziren.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1830eko otsailaren 7an onartu egin zuten Merkatal Kode berriaren hedapena eta aplikazioa Bizkaian.

Diputazioak intendente lana hartzen bazuten, zera ondorioztatu zuen, merkatarien buru ere bihur zitekeela. Baina korregidoreak ez zuten onartu horrelakorik, merkatal batza berria “*un cuerpo de muchas cabezas*” bihurtzen zelako. Azkenean, ogasun ministerioak 1830eko martxoaren 23an onartu egin zuen, merkatarien batza berriko buru edo presidentzia korregidoreari zegokiola eta Diputazioak intendenteen esku zeuden eskuduntzak bereganatzen zituela.

Bizkaiko Diputazioak ez zuten gogo onez bereganatu delako agindua. Horrez gainera merkatarien epaitegi nagusiko “Prior” erregeak Pedro Pascual Uhagon izendatu zuen. Diputazioak 15 izen igorri zituen 1830eko martxoaren 29an (*Lista que comprende quince comerciantes aptos para la judicatura del Tribunal de Comercio de esta villa*)<sup>4</sup>. Zerrrendan ez zegoen P.P.Uhagon<sup>5</sup> hala ere izendatua izateak Bizkaiko Diputazioan ezinegona sortu zuen eta Batzar Nagusietara eramango zutela delako izendapena agindu zuen. Lehen epaitegi-

---

<sup>4</sup> Manuel Claudio Jane, Jose Manuel Murgoitio, Enrique Goossens, Juan Antonio de Erezuma, Bernabé Diaz de Mendivil, Manej Antonio Bolloqui, Angel Martinez, Francisco Lorenzo Lapeira, Melchor Leguina, Patricio Landaluce, Mariano Sarria, Antonio Yrigoyen, Juan Martin Jauregui, Niceto Arzadun, Mariano Arteaga) Bizkaiko Diputatu nagusiak ziren: Romualdo Landecho eta Martín Leon Jauregui.

<sup>5</sup> Iparraldetik etorritakoak ziren baina frantsez moduan hartua zegoen. 1833an Bizkaiko batzarretan Diputatu nagusia aukeratu izan zen eta lehen gerra zibil karlistean, 1833ko urriko hiruan altxatu ziren karlistak bere koñatua hil eta bera ezkutatu egon ondoren, preso hartu zuten. Liberal joerakoa aldi berean foruzale.

ko kontsulak, Manuel Claudio Jane eta Juan Martin Jauregi ziren. Bilbokoa Tribunal de primera clase delako zen. Epaitegi berriko gastuak, Junta de Comercioen gain joango ziren aurrerantzean.

Azkenik Bizkaiko Batzar Nagusietan 1831 eztabaidatu zen merkatal kode berriaren ezarpena eta besterik barik, onartua izan zen.

Beraz, Kontsuladutik bi erakunde berri atera ziren: merkatarien epaitegia eta Merkataritzarako Batza

### **Merkataritzarako Erret Batzaren (Real Junta de Comercio) ondasunen kudeaketa**

Real Junta de Comercio izan zen merkatarien elkarte berria, 1830eko otsailaren 22an indarrean sartu zen, 1829ko azaroaren 16ko erret aginduari jarraituz. Korregidoreak hartu zuen elkarte berriko buruzagitzia. 1830etik 1859arte iraun zuen. Izen aldaketa gertatu arren, Bilboko kontsulatu historikoaren esku-bide eta aginte guztia beregain hartu zuen, merkatarien arteko epaitegiarena izan ezik. Kontsulatuak bere gain 28 pertsona zituen eta guztiek lanean jarraitu zuten, Merkatal batzaren ardurapean. Horrela iraun zuen 1844.arte.

Garai honetan Europako zenbait herrialdeetan iraultza industrialaren fenomeno iraunkortasuna hartzen ari zen. Ingalaterrako eskualdeetan kotoizko produktuetan oinarriturik industrializazio prozesuak gihartu ziren eta 1830 urtean industrigintzaren bigarren aroan sartzen hasi ziren non burdingintza bihurtu zen sektore estrategikoan. Belgikako eta Suitzako eskualdeetan ere antzeko fenomeno gertatzen ari zen. Bilbon fenomeno guzti hauen berri zegoen. 1832an adibidez Bizkaiko Batzar Nagusietan P. Novia de Salcedok aurkezturiko txostenean trenbidearen proiektuaren egitasmoa aurkeztu zen, Balmaseda eta Bilboren artekoa alegia.<sup>6</sup>

Baina hurrengo urtean, erregearen heriotza gertatu ala, absolutistak Karlos errege bihurtu nahi zutela, Bilbon arrakasta izan zuen hasieran behintzat, Karlos Espainiako errege izendapenaren altxamendua. 1833tik 1839.arte gerra zibila eta bortitza hezurramitu zen Bilbon. Eta urte hauetan Bilboko merkatariek, Espainiako erresuman, Bilbo hiria liberalismoaren ikur bihurtu zuten. Hiru alditan karlisten setioen aurka irmoki iraun zuen.

Gerra karlistaren giroan eta urte batzuk lehenago ere, Bilboko merkatariek Ameriketako portuekin harreman zuzenak eragiteko nahi zuten eta 1828an

---

<sup>6</sup> Bizkaiko ekonomiaren bilakaera aztertzeko eta bereziki merkataritza eta industria arloa ikus: AGIRREAZKUENAGA J. *Vizcaya en el siglo XIX: Las finanzas públicas de un Estado emergente*.Bibao, 1987



aduanak berriz kostaldean izateko aukerak aztertzen ari ziren. Beraz aduanen kokapenak, etorkizuneko merkataritzaren geroa eta negozioak antolatzeko erak baldintzatzen zuen. Eta zalantzarik barik, hauxe zen Bilboko merkatarien kezka nagusia.

Adibidez, 1832an Pedro Novia de Salcedok idatzi zuen: *Pero sí debo hacer observar que esta misma convicción que le ha hecho siempre ir unido al Pays en la defensa de sus Fueros, lo ha hecho al mismo paso el blanco principal de los tiros del Ministerio, restringiendole y limitandole todo lo posible sus relaciones mercantiles con el interior y procurando a toda costa transportarlas a otros puertos castellanos de la Costa Catanbrica...*

*El objeto constante y buscado a toda costa por el Ministerio es cansar y estrujar al Comercio de Bilbao para que en un momento de aburrimiento pida el establecimiento de las Aduanas.*<sup>7</sup>

Bitarteko merkataritza ez ezik merkataritza aktiboa aldarrikatzen zuen, egitura produktibo sendoan finkatua alegia. Foruzaletasun irmoaren erakusle eta defendatzaile zen P. Novia de Salcedo eta ideologia arloan, absolutista ondoren karlismoaren ingurukoa izan zelarik eta 1833an karlisten buruzagia Bilbon hasierako erasoaldian.

Bestelako ikuspegia V. L. Gamindek erakusten zuen: 1837an aduanak aldatzearen aldeko liburuxka argitaratu zuen. Izenburua bera nahiko adierazgarria: *Intereses de Bilbao. Ecsamen de lo perjudicial que sería la permanencia del sistema foral en el siglo XIX al comercio e industria del País y a los liberales de Vizcaya.*<sup>8</sup>

Beraz, zatiketa agiri da eta baita liberalen baitan ere. aduanen arazoa eta foruen iraupena, loturik daude. Liberala foruzaleak ez dituzte nahi izango aldatetik eta horretarako *El Bilbaino* aldizkarian beraien ikuspegia zabaltzen saiatu ziren. Liberal sutsuak aldiz, V.L.Gaminde eta P. Lemonauria buru zirela, konstituzioari egokituriko foruen defentsa aldarrikatzen zuten eta beraz, Espainiar merkatuaren baitan zatiketa gabekoa. Horretarako aduanak kostaldean kokatu behar ziren. Bilboko merkatariek liberalismoaren aldeko joera erakutsi zuten.

Liberal epelak, euskal lurraldea merkataritza librerako lurraldea mantendu nahi zuten. Foruzaletasun irmoaren ikur bihurturik zegoen aduanak barruan egon behar zirela, merkataritza librea foruzaletasunaren berezitasun adierazkorrena zelako.

<sup>7</sup> *Observaciones acerca del proyecto de caminos con respecto a la Villa y Consulado de Bilbao.* (Rafael Miezaren Artxiboa. Bilbao)

<sup>8</sup> GAMINDE V.L. *Intereses de Bilbao. Ecsamente lo perjudicial que sería la permanencia del sistema foral en el siglo XIX al comercio e industria del País y a los liberales de Vizcaya.* Bilbao, 1837

Giro honetan, 1841ean, berriz ere foruen sistema indarrean zegoela, aduana oraindik barrualdean (Balmaseda, Orduina, Gasteiz eta Ebro ibaian), txosten jakingarria argitaratu zuen Bilboko merkatarien batzak: *Estado de propiedades pertenecientes a la Real Junta de Comercio de la I. Villa de Bilbao en Hacienda raiz, con apuntaciones interesantes sobre los derechos de averia y prebostad*. Bilbaon argitaraturik dago, N. Delmasen modiztegian.<sup>9</sup>

Merkatal Erret Batzak, Kotsulatuaren ondorengo gisa, zerga garrantzitsu bi kobratzen zituen, "aberiarena" : janezko, edanezko edo erregaiezko ziren produktu guztiak Bilbon edo inguruko kaietan deskargatu edo sartzen zirenak ehuneko bateko zerga ordaindu behar zuten ken 15 % flete gastuak.

Merkatal Batzak 1841ean, %1,5 ordaindu behar zutela agindu zuen. Prebostad delakoaren zergak ehuneko 2,5 kobratzea agintzen zuen. Azken hau, espezien hartzen zen. 1841ean, prebostad delakoa Bilboko ez zirenek ordaindu behar izaten zuten.

Ibaizabaleko itsasadarreko kaia guztiak Merkatal Batzarenak ziren, Atxuriko Enkarnazio paretik itsasoraino.

Horrez gainera ondasun zabalak zituen, besteak beste Orduñako errepi-dearen zatiak. Bilbon bertan eta inguruko elizateetan hainbat eremuren jabe zen. Baita, Santiago, San Juan elizateko jesarleku printzipalena, zein pilota jokoaren lekuko aulkiena.

Udaletxeko lehen solairua Kotsulatuarena zena, aurrerantzean Merkatal Batzarena izango zen. Gorengo ganbaran, Kotsulatuak bere eskolak eta irakaskintza gunea sortu zuen eta bertan 1818ko urteaz geroztik, garatu zen merkatal eskola,

Horrez gainera, hainbat kapital harturik zuen eta beraz interesak ordaindu beharra bazuen. Ondasun garrantzitsuak kudeatzen zituen.<sup>10</sup>

Beraz, Merkataritzarako Erret Batza, oraindik orain, 1841ean, merkatarien agintearen erakusle zen. Bilboko gizartean, merkatarien elkarte sendoa zela adierazten zuen. Hainbat merkataria, 1841eko urrian liberal foruzaleen aldeko erreboltaren aldeko zirenez gero, Zurbano jeneralaren eta Esparteroren aginduz, errepresio latza jasan behar izan zuten. Zigorrak diru kopuru handiak ordainduz kitatu zituzten.

---

<sup>9</sup> Bizkaiko Foru Artxiboa. Gernikako Batzar Nagusietako artxiboa. Comercio erregistroa, 5, leg.3.

<sup>10</sup> *Estado de propiedades pertenecientes a la Real Junta de Comercio de la I. Villa de Bilbao en hacienda raiz, con apuntaciones interesantes sobre los derechos en averia y prebostad*. Bilbao, Imprenta de D. Nicolas Delmas, 1841

Bilboko portuko azpiegitura eta kaien egoera zen Merkatal Batzaren ardurara nagusia. 1842an *Dirección General de Caminos y Canales*ek txostenak idatzi zituen, ibaizabalen inguruko nabigazioa hobetzeko asmoz. Baina dirurik ez zuela eta horretan gelditu zen. Merkatal batzaren diru iturriak zeintzuk ziren jakin nahi zuen gobernu zentralerako zuzendaritzak. Eta azkenik, 1843an arantzel berriak onartu eta argitaratu zirenean, ohizko zerga sorburuak, aberiarena eta prebostazgoa, bertan behera gertatu ziren. Oraindik lanak egiten saiatu zen Merkatal Batza. Baina 1844an, portuko azpiegitura guztiko kudeaketa, kaiak eta bestelako ardurara eta aginte administratiboa, Espainiako gobernuak bere gain hartu zituen. Aurrerantzean *Dirección General de Caminos y Canales*ek bere ardurapean hartu zituen itsasadarreko nabigazio arazoaren kontu guztia gehi kaiak, guztira 21 kilometro.<sup>11</sup>

Ondoko urteetan Merkatal Batzaren indarra eta eragina Bilbo eta Bizkaiko gizartean murriztu egin zen. Kobratzen zituen zergak desagertu zirelarik, diru iturri nagusia eta erakunde publiko gisa eraginkortasuna galdu egin zuen, Diputazioaren mesedetan. Hala ere oraindik bere indarra mantentzeko gaitasuna zuen. Merkatarien elkarte moduan antolaturik zegoen eta merkatarien arazoak eztabaidatzeko gune zen. 1845ean zenbait ariel edo zerga berriz indarrean sartzea lortu zuen, merkatal eskola, hizkuntzazkoa, marrazki eta matematikakoa bere horretan jarrai zezaten. Merkataritza bereziko Eskola garrantzitsua zen Bilboko ikasketa profesionalen arloan.

1848ko irailaren 9an "Comisión de Censualistas" antolatu zuen. Horra helburua: *"En consideración al estado en que hoy se hallan los censuistas que entregaron fuertes sumas bajo hipoteca del derecho de la averaia que ha desaparecido, sin haber sido indemnizada aquella u otra que la sustituya y con el objeto de mejorar su suerte"*<sup>12</sup> Ez dirudi askorik lortu zuenik delako batzordeak, 1860 hamarkadan oraindik lanean jarraitzen baitzuen. Batzordeko buru, Blas Landecho aukeratu zuten eta tartean G.M. Ybarra, J.B. Uriarte, F. Gaminde, R. Arellano.

Azpiegitura lanak bultzatzeko talde moduan azterketak argitaratu zituzten: Adibidez *Manifiesto de la Real Junta de Comercio de esta villa explicando su conducta y gestiones en el asunto relativo a la erección de un punete de fierro a inmediación de la rambla principal del Arenal* (1845).

1847ko urriaren 7ko erret aginduaren ondorioz Real Junta de Comercio edo Merkatal Batza erakunde kontsultibo eta administratibo soilara bihurtu zen. Bil-

<sup>11</sup> *Homenaje a Churruca. Apuntes biográficos del Ecmo Sr. D. Evaristoo de Churruca, Conde de Motrico. Antecedentes históricos y resumen descriptivo de las obras de mejora de la Ria y Puerto de Bilbao*. Bilbao, 1910 inguruan argitaratua

<sup>12</sup> Bizkaiko Foru artxibategia (Bilbo): Merkatal batzaren akta liburua. Junta de Comercio. 0051.

boko merkatariak mesfidati bihurtzen hasi ziren. Espainiako botere zentralak Merkatal Batzaren ondasunak ezerezten zituelako eta larriena zera zen, kudeatzen zituen kapitalen interesak ez zituela ordaintzen: 7.743.542 erreal bere kargu harturik zituen.

Inportazioetako 6% azpiegiturak hobetzeko jarri zuen legedi berriak, baina azpiegituren kudeaketa eskumena galdurik zuen. *Manifiesto que la Real Junta de comercio de la invicta villa de Bilbao dirige a los Comerciantes de la misma*. 1849an argitaratu zuten. Ikuspegi beltza adierazten dute eta aginte gehiagoren egarria dago. Arazoa zen, Merkatal Batzak bere gain harturik zituen kapitalen interesak ezin zituela ordaindu. *“un pueblo puramente comercial, que no mas cuenta de doce mil habitantes, de mediano capital los mas acomodados de entre ellos, que que sufre una escacción de tres millones de reales en 1833, que experimenta en 1836 en el material de los edificios que encierra en su estrecho recinto un perjuicio justificado de seis millones, que desde la primera época hasta el último tercio de 1839 pierde sumas incalculables en derramas y prestamos frecuentes(...) un pueblo que en 1841 es multado en tres millones de reales, a quien se le despoja además de la averia y prebostazgo, reduciendo el valor del capital que estos arbitrios representaban en mas de siete millonees(...) y que en este largo período de desventuras, solamente es testigo de dos bancarrotas, bien merece que se le atienda y que se abogue por él con orgullo y entusiasmo”*<sup>13</sup> Testu hau, XIX mendeko Bilboko merkatarien mentalitatearen erakusle ezin garbiagoa dugu. Galtzailearen kontzientzia erakusten du.

Horrez gainera urte guzti hauetan, nabigazioaren garapenerako itsasadarra arazo handia bihurtu zen. Inbertsio gutxi azpiegituran eta kexuka zeuden.

Trenbidegintzari ekiteko eta Bilbora trenbidea ekartzeko ahalegina sare europarrean loturik, 1845 urteaz geroztikoa, porrotean amaitu zuen. 1855ean Bilbo trenbideen saretik at gelditu zen eta berehala bere kabuz Mirandan lotura egiteko proiektua merkatariak bideratu zuten. 1856an, Bilboko bankoa sortu zuten. Berriz ere, ekimen hau esango genuke, merkatarien elkartearen arrakasta bihurtu zen. Bankuko akzioetan marrazkiak begiratzen baditugu, Delmasek marraztua, alegia, garaiko euskal ikuspegiko ikur guztiak agiri dira eta bereziki, Irurak bat eta merkatarien girokoak.

Azkenik, gobernadore zibilaren eta botere zentralaren aginduz, Merkatari-tzarako Erret Batza desagertu arazia izan zen, merkatarien protestaren artean eta beste erakundetze administratiboen baitan kokatu ziren. Baina oraingoan, nabarmenago geldituko zen aurrerantzean, gobernadore zibilaren azpian antolatu beharra zutela.

---

<sup>13</sup> *Manifiesto que la Real Junta de Comercio de la invicta villa de Bilbao dirige a los comerciantes de la misma*. Bilbao, 1849, orr.29

**“Junta de Agricultura, industria y comercio de la Provincia de Vizcaya.” (R.D.14.XII.1859) antolakundea eta Merkatarien Ganbararen sorrera. (1886)**

1859ko abenduaren 14 erret aginduaren bidez, Merkatal Batza bertan behera uzten ziren eta erakunde administratibo berriak antolatu ziren. 1847an jadanik sortu ziren apirilaren 9ko errete aginduaren bidez Merkataritzarako eta nekazaritzako batzorde bereziak. Kontsultak eta orientabideak egiteko batzordea zen, baina bere eragina murrizta. Gobernu zentralaren eragina nabarmenago bihurtzeko joera azken batean. 1848ko apirilaren 7ko erret aginduak *Juntas de Agricultura Industria y Comercio* jarri zituen indarrean baina eragin handi barik.

1859ko ekimena beste horrenbeste nahi zuen: Aurrerantzean, administrazio periferikoaren buru zen gobernadore zibilaren agindupean, *Junta de Agricultura, industria y comercio* izeneko erakundea indarrean jartzen zen gobernu zentralaren irudia Bilbon nabarmenago agertzeko.

Bizkaiko eta Euskal Herriko egoeran, bi administrazio publikoen eragina agiri zen: Administrazio forala eta Estatuko administrazioarena. Beraz Batza berriaren antolaketa gobernadore zibilaren azpian jartzen zen neurrian, Estatu zentralaren agindu zuzena izango zuen aurrerantzean. Eta tokian tokiko, Bilboko merkatariek bere kabuz antolatu zuten erakundetzearen azkena izango zen.

Beraz, data hori har dezakegu berez, Kontsulatuaren ondorengo erakundetzearen amaiera data bezala.

1860an Pablo Epalza zen Bilboko Merkatal Batzaren buru. Erret aginduen kontra zegoen. Ez zuen nahi Merkatal Batzaren desagertzea. Merkatarien interesak defenditzeko oztopo handiago egongo zen aurrerantzean, nekazal eta industriaren sektoreen parean jartzen baitzituzten.

Baina izkribu eta protesta guztiak alperrik izan ziren. 1860an, Bilboko Merkatal Batza bertan behera gelditu zen.

Bizkaiko Gobernadore zibilak 1861ean izendapen berriak egin zituen. Merkatarien izendapenak egin ondoren, Juan Antonio Urigüenek baino ez zuen onartu. Beste guztiak izendapenari uko egin zioten.<sup>14</sup>

Aurrerantzean beraz, merkatarien erakundetzea, gobernadore zibilaren eta beraz Estatuaren administrazio publikoaren luzapen soila izango zen. Izendapenak ere gobernadoreak egingo zituen.

---

<sup>14</sup> *Bilboko merkataritzagintza eta itsasketa etxea- Camara de Comercio Industria y Navegación*. Bilbao, 1986, 92-94 orr.

Merkatarien bere kabuzko antolaketaren indarra eta autonomia galdu egin zuten gizartean. 1869an, berriz lortuko dute eta beranduago, 1886an Merkatal kode berria indarrean jarri zenean, Bilbon berehala azaldu zen merkatarien ekimen autonomoa antolatzeko erakunde berria antolatzeko aurreproiektua: *Proyecto de Bases para la creación y régimen de las Cámaras de Comercio y de la Industria* Ondoren Bilboko Merkataritza ganbara antolatu zen.

Baina aldi berean, Estatuko administrazio periferikoaren atal gisa antolaturik iraun zuten merkataritzarako Batzak.

Ondoren, *Junta de Agricultura Industria y Comercio de la Provincia de Vizcaya* 1860an egindako memorietan oinarriturik zer nolako ekimenak burutu zituzten agertuko dugu.<sup>15</sup>

Hasieran ez zeuden argi eta garbi zeintzuk ziren erakunde berriko esku-menak. Adibidez, 1862an *“facultades para examinar y espedir competente-mente los títulos a los que aspiran a ser pilotos lemanes”* eskatu zuen. Kexu nabarmena urterik urte gertatu zen: *“Estrecho círculo de sus atribuciones”*. Hala ere arazo nagusiena, azpiegitura arloan gertatu zen. Urterik urtera, portuko eta ibaizabal itsasadarraren nabigaziorako egokitzapenaren inguruan, gogoetak egiten ziren. 1866an Samuel Hocking injinadore ingelesaren planoak jaso zituzten.

Bestalde, trenbidea eta portuaren arteko loturak aztertu ziren. Garraio sistema Ibaizabal itsasadarraren inguruan gaizki antolatua zegoela salatzen zuten. 1865ean Luciano Alday baimena eskatu zuen “vapor-remolcador” delakoa garraio zerbitzuetan sartzeko eta lortu egin zuen. Bestalde, A. Aguirrezabal 15 urterako arrantza sisteman baporeak erabiltzeko eskusiba eskatu zuen. Hau da vaporeak erremolkean erabiliko zituen txalupak eta lanbide horretarako baimena eskatzen zuen. Baina ministroak bapore erremolkadoreen lana librea izan behar zuela agindu zuen.

Hirinak Cuban eta Puerto Ricon ordaintzen zituen arantzelak kritikatzten zuten. Abel hazkuntzaren arazoak eta ferien antolaketa ere eztabaidagai izan zen. *“Derecho diferencial de bandera”* delakoa, lurreko inportazioak egiteko kentzearen kontra azaldu zen. Honekin, protekzionismoaren aldeko jokamoldea agiri zuen alegia.

Diputazioari eskatu zitzaion erakundearen azpiegitarako ordainketa baina uko egin zion. *“Administrador principal de propiedades y derechos del Estado”* delakoak artxiboan ondasunen berri zeuden agiri guztiak eskatu zituen.

1865ean, Abran, “puerto de refugioren” egitasmoa hasi zen planteatzen. Kantauri itsasoko portuen arautegian, Bilboko Abra zela babes portu gisa anto-

---

<sup>15</sup> Ministerio de Agricultura.(Madrid) Artxiboa, Agricultura, 231. eta beste atal batzuetan ere albisteak agiri dira

latzeko egokiena azaldu zen honezkero. Aldi berean, harrizko ikatz gunek antolatzeko lekuak aukeratzen hasi ziren. Industrigintzaren aurrerapenaren indikadorea dugu azken hau. Esportatzen zen burdin mearen gaineko zerga kentzea eskatzen zuten eta inportazioko gain zerga jartzea proposatu zuten, 500.000 errealeko diru sarrerak lortzeko, azpiegitura lanei ekiteko.

Londreseko erakusketa unibertsalean parte hartzeko aukera ere aztertu zen.

Azken batean, 1860ko hamarkadan erakunde berriak, eraginkortasun erabat murrizta erakutsi zuen.

Eta egoera politikoa aldatu zenean, 1868an hain zuzen ere, hurrengo urtean, Diputazioaren laguntzaz, berriz ere merkatarien elkarte berria antolatu zen, 1869eko apirilaren 1ean. “*Junta de Comercio de Vizcaya*, “ merkatarien berezko erakundea. Foru Diputazioaren iritziz, 1859tik sorturiko Juntak edo Batzak, foruen aurkakoak ziren.

Dena dela, aurrerantzean ere portuaren egokitzapena iraultza industrialaren abiadarako premiazkoa izanik, saiatu ziren portuko lanak indartzeko, *Junta de Obras del Puerto*. (R.O.. 19.11.1872.) delakoa antolatzeko, erret agindua zegoen. Portuko kudeaketa Erresuma Batuko enpresa baten esku uzteko proiektua aurreratua egon zen. Baina gerra zibil berria zela eta, enpresak ez zuen bere gain hartu eta 1877ko irailaren 5ean erakunde berria antolatu zen, publikoa eta zergen bidezko iturburuak finkatuz, ondoren, portuko lanei ekiteko<sup>16</sup>.

Kontsulatuaren eta Merkataritzarako Erret Batzaren ondasun historikoa *Consejo Provincial de Agricultura Industria y Comercio de Vizcaya* ardurapean gelditu ziren. Eta elkarte honek 1895eko irailaren 5ean, eraikuntza historikoa ez desegiteko ahalegina egin zuen. Baina ez zuen helburua lortu eta 1896an eraikuntza historikoa Bilboko Udaletxeak birrindu egin zuen. Horrez gainera Bilboko udaletxe historikoa ere desegin zen betirako.

Ondoko urteetan, merkatarien interesen alde egingo zuen elkarte 1886an Merkatarien Ganbara alegia, eratu zen, Merkatal kode berriaren harian.

Laburbilduz, merkatariek, XIX mende erdian elkarte sendo izateko aukera galdu egin zuten eta administrazio publikoak bere kontrolpean nahi izan zituen eduki. Hala ere, azkenik, 1886an, berriz merkatarien ganbararen sorrerarekin indar autonomoa erakundetzea lortu zuten.

Hala ere, merkatarien eraikuntza historikoaren desegitea Bilbotarrek ondare historikoaz eta iraganaz duten arduraren metafora adierazkorra bihurtu zen.

---

<sup>16</sup> DE LA PUERTA, Natividad, *El puerto de Bilbao como reflejo del desarrollo industrial de Vizcaya*. Bilbao, 1994.